

HITZA

Ekainaren bukaeran «normaltasunera» itzuli nahi du Espainiako Gobernuak

Konfinamendutik ateratzeko ibilbide-orria aurkeztu zuen atzo Pedro Sanchez Espainiako Gobernuako presidentek. Planak lau fase ditu eta, atzerapausorik ez bada, fase batetik bestera pasatzeko bi aste beharko dira // 2



Zarautz

Fernando Lopetegui kirol errealizadoreak hainbat berrikuntza egin ditu telebistan 30 urtetan zehar // 4

«Harmailetako animo oihuek asko motibatzen gaituzte»

IGOR ZUBELDIA
REALEKO FUTBOL JOKALARIA

Futbol txapelketa etenda dagoen arren, Igor Zubeldia gogor entrenatzen ari da etxean. Izan ere, orain arteko maila eman nahi du Realak, denboraldia berriz martxan jartzen bada // 6

Oihalezko 600 maskara banatu ditu doan Azpeitiko Elkar-ekin taldeak

Orioko Carmen Arrandegia oihalezko maskarak egiten ari da, herritarren artean banatzeko, borondatearen truke. Ekimenaren bidez biltzen duten dirua Berdin-Berdinak elkartearantzat izango da // 7



Mobilizazioak egin dituzte eskualdeko lantokietan

Atzo, apirilak 28, Laneko Segurtasunaren eta Osasunaren Nazioarteko Eguna izan zen, eta eskualdeko hainbat lantegitan bat egin zuten ELA, LAB, ESK, Steilas, Etxalde eta Hiru sindikatuek egin zuten Salaketa Eguna deialdiarekin. Salaketa egun horri lotuta, lantokien aurrean elkarretaratzeak, isiluneak eta eserialdiak egin zituzten. Nabarmendu zuten «COVID-19aren krisiak eta ezarritako salbuespen egoerak baldintzatu» duela aurtengo nazioarteko eguna. «Krisi honetan langile guztion osasuna arriskuan jarri dute», nabarmendu dute. Mobilizazioen deitzaileek azaldu zuten, lan osasuna bermatzeko «baliabide nahikorik gabe lan egitera behartzen» dituzte. «Kapitalaren interesak lehenesten dituzte langileon osasunaren gainetik», adierazi zuten. Salaketa Eguna adierazpena sinatu duten sindikatuek azaldu zuten, «argi» dute bizitza eta kapitalaren artean aukeratzeko unea iristen denean, «lehendabizi bizitza» jarriko dutela. HITZA

«Normaltasun berria» ez da iritsiko ekainaren bukaera arte

-ERREDAKZIOA

Konfinamendutik ateratzeko Espainiako Gobernuak prestatu duen plangintza aurkeztu zuen atzo Pedro Sanchez presidentek. Deskonfinamendua mailakatua eta asimetrikoa izango da, lurraldeen arabera; horrela, herritarrak ezingo dira bizi diren probintziatik mugitu, alarma egoeran ezarritako salbuespenetarako ez bada.

Lau fase ezarri dituzte, fase bakoitzak bi asteko iraupena izango du gutxienez eta, atzerapausorik ez bada, ekainaren bukaerarako iritsiko litzateke «normaltasun berria», Sanchezen esanetan. Irailean hasiko den ikasturte berrira arte ikasleak geletara ez direla itzuliko ere aurreratu zuen, hiru salbuespenekin: unibertsitateko hauta-probak egiteko, errefortzu klaseak emateko eta gurasoek etxetik kanpo lan egin behar duten 6 urtetik beherako umeak hartzeko.

Dagoeneko martxan da presakteta fasea; haurrek bezala, helduek ere irteera mugatuak egin ahalko dituzte datorren astebu-

rutik. Hala ere, atzoko agerraldian Sanchezek ez zuen irteera horien nondik norakoen xehetasunik eman. Zero fase honen barruan, maiatzaren 4tik aurrera jatetxeak etxera eramateko jana prestatzen hasi daitezke, eta beste zenbait zerbitzu ere martxan jarri ahalko dira, aurretiazko txandak emanda.

Maiatzaren 11n hasiko litzateke hasierako fasea. Denda txikiak lanean hasi ahalko dira egun horretatik aurrera, larrialdi egoerarako ezarritako babes eta segurtasun neurriak hartuta, baina merkatal gune handiak ez. Ostalaritzan, terrazak irekitzeko aukera emango dute, baina mugatuta, eta inola ere ez lokal itxiak edota barruko guneak: hotelak eta ostatu turistikoak irekitzea ere aurreikusitako lehen fase horretan, baina horietako gune publikoak edo komunak ez. Kultura lekuak ere irekitzen hasi ahalko dira, baina jende kopuru mugatuarekin.

Erdibideko fasea etorriko da gero, eta horren barruan jatetxe barruak ere ireki ahal izango di-

tuzte; baita zinemak, antzokiak edota erakusketa eta hitzaldi aretoak ere, baina mugatutako jende kopuruarekin; ikuskizunetarako areto itxietan gehienez 50 pertsona bilduko direla azaldu zuten atzo Sanchezek, eta aire librean berriz, 400 lagun.

Fase aurreratuan, azkenik, mugikortasuna «malgotu» egingo dute —zehaztasunik gabe momentuz—, merkataritza jarduerak %50era iritsi ahal izango dira eta ostalaritza jardueretan ere malgutasun gehiago egongo da, besteak beste.

Probintziak aztertuko dute egoera, fase batetik bestera urratsa egin aurretik; epidemiaren garapenaren datuak ikusita erabakiko du Espainiako Gobernuak, beraz, probintzia bakoitzak fase batetik besterako urratsa egin dezakeen ala ez. Berez, atzerapausorik ezean, zortzi aste iraungo luke deskonfinamendurako bideak.

Azkenik, maskara erabiltzea «guztiz gomendagarria» dela, baina ez dela derrigorrezkoa izango azaldu zuen Sanchezek.

Azken orduetan koronabirus kasu berri bakarra baieztatu dute

-AITZIBER ARZALLUS

Koronabirusaren pandemiak hedatzen jarraitzen du Urola Kosta eskualdeko herrietan, baina haren abiadura moteltzen ari dela erakusten dute azken egunetako datuek. Eusko Jaurlaritzak atzo eguerdian jakitera emandako datuen arabera, herenegun arratsaldeko zortzirik arte, kasu positibo berri bakarra atzeman zuten eskualdean; zehazki, Azpeitian.

Gainerako herrietako kutsatuen kopuruek ez dute gorabeherarik izan, beraz azken orduetan. Kutsatutako kasuen kontaketa hasi zutenetik, 238 dira Urola Kosta eskualdean zenbatutako kasuak.

Honako hauek dira herriz herriko COVID-19 gaitzarekin kutsatutako kopuruak: Zarautzen 128 herritar; Zumaián 48; Orion eta Azkoitian hamazazpi; Azpeitian hamalau; Getarian bost; Zestoan lau; Aian hiru; eta bi Aizarnazabalen. Beizaman eta Errezilen ez dute kasu positiborik hauteman.

Hala eta guztiz, kontuan izan behar da koronabirusaren pandemia hasi zenetik sendatu eta hil diren bizilagunak ere badirela eskualdean, eta beraz, ez dago datu zehatzak jakiterik, Eusko Jaurlaritzak ez baititu datu horiek herriko ahalbidetzen. Gainera, badira COVID-19 gaitza izan dezaketen edo pasatu duten eta probarik egin ez dioten herritarrak ere.

Lurraldekako datuak

Osakidetza emandako datuen arabera, azken orduetan 392 kasu berri zenbatu dituzte Araba, Bizkai eta Gipuzkoan, eta, orotara, 14.804 dira kutsatutakoak. Hiru lurralde horietan, hamalau pertsona hil ziren atzo, eta 134 osatu. Guztira, 1.255 pertsona hil eta 9.974 sendatu dira krisia hasi zenetik.

Nafarroan, berriz, 26 kasu baieztatu dituzte azken orduetan eta ez da inor hil. Guztira, 5.630 kasu positibo eta 432 hildako zenbatu dituzte kontaketa hasi zutenetik.

-IHINTZA ELUSTONDO

Osasuna beste konturik ez da azken berrogeitaka egunetan bazter guztietan. COVID-19a ez harrapatzeko neurriak, etxean egon beharra... eguneroko bilakatu diren honetan, emozioak, sentipenak, burua, bigarren plano batean geratu dira. Horregatik ez dira garrantzia gutxiagoko kontuak, ordea. Maria Gil (Azkoitia, 1991) Gasteizko Santiago Apostol erietxeko psikiatria plantako laugarren mailako egoiliarra da. Plantan ingresatu behar dutenekin lan egiten du, egoera larrian iristen direnekin.

Nola ikusten duzu jendea?

Gugana iristen diren pazienteak larrialdietatik etortzen dira, ingresatzea behar dutelako. Guk ikusten ditugun pertsonak nahasmen mental grabeak dituzte: eskizofrenia desorekatuak, nahasmen bipolarrak, depresioak... Nik ez ditut artatzen kontsultetara lo egin ezinik joaten direnak eta antzeko kasuak.

Nola eragin du konfinamendua duk herriarren buru osasunean?

Hau dena hasi zenean, guri ez zigun zuzenean eragin; hasieran, ez genuen sekulako lan kargarik. Baina konfinamendua aurrera doan heinean, gero eta okerrago gaude. Orain, aurretik buruko gaitzak zituen baina bizimodu normala egiten zuen gero eta jende gehiago ari da desorekatu. Gainera, bat edo beste badaukagu, koronabirusak eragindako estresa tarteko, sintoma psikotikoak izaten hasi dena.

Horrez gain, ambulatorietatik transmititzen digutena da beraiekin ere gero eta lan karga handiagoa dutela. Pentsatzen dut lehen lo egin ezinda zeudenak orain okerrago egongo direla.

Zer esan nahi duzu jendea desorekatzen ari dela diozuean?

Pertsona batek izan dezake eskizofrenia, nahasmen bipolarra edo depresioa, baina orekan egonkor. Gaixotasun kroniko bat izanagatik, orekan bazuade, ez daukazu inolako arazorik. Diabetikoa bazara ere, egonkortuta egonez gero, ez dago arazorik. Kontua da, edozein gaitz desorekatzen denean, ezegonkortzen zarenean, ingresatu egin behar duzula, berriz ere oreka lortu arte. Buruko gaitz berriz gaitz bera gertatzen da. Adibidez, aurrez nahasmen mental bat zeukatenak -baina orekan egundak- koronabirusaren inguruan deliratzten hasi dira orain. Gai horrekin lotutako desorekak ari gara ikusten.

Koronabirusaren ostean, buru-



HITZA

«Koronabirusaren eraginez, gora egingo dute buruko gaitzek»

MARIA GIL PSIKIATRA

Gasteizko Santiago Apostol erietxeko psikiatra da azkoitiarra. Koronabirusa osasun mentalean izaten ari den eragina nabaritu du dagoeneko. Aholkua, zera: hau ere pasatuko dela pentsatzea.

ko gaixotasunen beste pandemia bat etorriko dela diote adituek. Arrisku hori badago?

Hau dena gutxi gorabehera pasatzen denean, jendea koronabirusaz ahazten denean, gu oraindik oso kaltetuta egongo gara. Betiko pazienteez aparte, jende berria artatu beharra izango dugu. Doluak oso gaizki ari dira egiten; jendea ez da ari bere sentitartekoak agurtzen, ezin da gaixoak bisitatzea joan, bakarrik hiltzen ari da jendea... Aurreikusten duguna da dolu patologiko pila bat egongo direla, eta horiek gero tratatu egin beharko dira. Eta batez ere, osasun langileak pila bat ari dira sufritzen.

Zer ari zaie gertatzen osasun langileei?

ZIU Zainketa Intentsiboetako Unitateko langileak, adibidez, izugarri ari dira sufritzen: lan karga handia dutelako eta paziente pila bat hiltzen ari zaizkielako. Hori oso gogorra da. Gainera, ez dute nahikoa babes material, eta une oro beren burua

arriskuan jartzen ari dira. Langile horiek etxean familia bat daukate -umeak, gurasoak...- eta haiek kutsatzeko beldur dira. Jende pila batek dauka gaitza etxera eramateko beldurra.

Horrek nola eragin dezake haien osasunean?

Ikusten ari gara jendeak antsietatea duela, lana etxera eramaten duela eta ez duela deskonektatzen: lanera joaten dira eta koronabirusa dute parez pare, eta etxean telebista jarri eta beste konturik ez. Batzuek esan digute ez dutela lorik egiten koronabirusa harrapatu dutela amesten dutelako. Horri lotuta, zerbait egin behar genuela pentsatu genuen, eta ospitale ugartan sortu dira osasun langileei babes psikologikoa emateko taldeak.

Depresioa, antsietatea eta beste patologia batzuk bikoiztu egingo direla diote ikerketek.

Bai, zehazki ez dakigu bikoiztu egingo diren, baina ziur gehiago izango direla. Depresioa eta antsietatea bai; izan ere, horiek dira

dolu patologiko batek ekar ditzakeen ondorioak. Dagoeneko antsietate gehiago dago gizartean; lehen nahiko estresatuta bizi ginen, eta orain gehiago. Estres hau denok ari gara sufritzen, eta gero, norberaren zailtasunen arabera, hobeto edo okerrago kudeatuko dugu egoera.

Lehen presak eragiten zuen estresa, eta orain geldirik egon beharrak.

Ez genuen sekula pentsatuko hila bete pasa etxean sartuta eman beharko genuenik. Lanean ari garenak ari gara: etxetik lanera eta lanetik etxera. Eta lanean ari ez denak hori ere ez dauka. Egoera berria da, estres eta presio pila bat dago, eta horri gehitu behar zaio ekonomian duen eragina.

Etorkizunaren inguruko ziurgabetasunak nola eragiten du jendearen emozioetan?

Ezjakintasun horrek antsietatearen eragin zuzena du. Eta hau zenbat eta gehiago luzatu, are okerrago. Horrela astebete edo nork aguantatu dezake, baina ez

dakit zenbat hilabete egoera honetan... Honek seguru edukiko duela eragina. Koronabirusaren eraginez, badakigu gora egingo dutela buruko gaitzek eta artatu beharko dugun gaixo kopuruak.

Egoera honetan beldur handia dute herritarrek. Horrek nola eragiten du?

Jendea oso beldurtuta dago. Pentsa, ospitaleetara iktus kasu gutxiago iristen ari direla konturatu dira. Koronabirusaz ez kutsatzeko, jendea ez da ospitalera joaten, eta gero, etxean aurkitu dituzte batzuk. Kontsulta gutxi batzuk utzi dituzte zabalik egoera honetan, benetan beharrezkoak direnak, baina kasu horietan ere jendea ez da joaten ospitalera. Egoera honen ondorioz, gaixotasun kronikoak dituen jendearen -diabetesa...- desoreken beste olatu bat etorriko dela ere esaten dute, jendea ez delako medikuarenera joaten. Edo diagnostikatu ez diren beste mila gauza agertuko dira: minbiziak, iktusa izan dutenak eta ondorioak geratu zaizkienak... Herritarrek ez dira medikuarenera joaten, kutsatzeko beldurra dutelako; baina agian joan behar dute, beste zerbait dutelako.

Estresa ezin kudeatuta dabiren jendeak nola jakin dezake bide okerretik doala?

Edozer zalantza dutela, familia medikuarenera jo dezakete herritarrek, horretarako daude eta. Baina antsietate puntu bat izatea normala da; izan ere, arrazoik bat daukazu estresatuta sentituzko. Ez litzateke normala izango lasai asko eta inolako kezkarik gabe egotea egoera honetan. Kezkatu behar duzu zure erreakzioa ez denezuean lorik egiten, zure eguneroko bizitza mugatzen ari zaizunean estres hori...

Zer aholku emango zenioke animoz oso ondo sentitzen ez den jendeari?

Batez ere, pentsatu behar dugu hau ez dela betirako izango; lehenago edo beranduago, bukatu egingo dela. Ahal den heinean, aguantatu egin behar da; zenbat eta hobeto errespetatu jartzen dituzten neurriak, azkarrago bukatuko da hau. Esperantza hori ez dugu galdu behar.

Askok esaten dute krisi honetatik indartuta aterako dela gizartea. Hala iruditzen al zaizu?

Bizitzan gaitzitzen dugun oztopo bakoitzak aberastu egiten gaitu, eta honetatik iritertzen dugunean, esango dugu: «Hura gainditu nuen, eta hau ere gaindituko dut». Honek ere aberastu egingo gaitu.



Zarautztarra, lankideekin, errealizazio mahaian. UTZITAKOIA

Aste hauetan aspaldiko kirol saioak ari da eskaintzen ETB1. Gehienak Fernando Lopetegik eginak dira, hiru hamarkadaz izan baita kirol errealizadore arduraduna.

Euskal kirolaren begi eta arima

-ONINTZA LETE ARRIETA

Abuelo cebolleta bezala naiz», esan du Fernando Lopetegik barrez. «Gauza asko egin ditut». Eta ez zaio arrazoirik falta. 1983an hasi zen ETBn lanean, eta 35 urtean makina bat lan eta berrikuntza egitea tokatu zaio kirolerako errealizadore gisa. Gauza kuttun asko ditu, baina nagusiki musika, eta horrez gain baita estropadak eta pilota ere.

Martxoaren 16an hartu zuen aurre-erretiroa, konfinamendua hasi eta egun gutxira. Zereginik ez zaio falta, ordea. Irakurtzeaz eta semearekin filosofiaz eztabaidatzeaz gain, badu zaindu beharreko senide bat, eta ZarautzOn zientzia dibulgazioko elkartearen ere buru-belarri dabil.

Telebista askorik ez da ari kontsumitzen, ordea. «Orokorrean, ez zait gustatzen telebistetan eskaintzen ari direna. Gainera, ETB1en ematen ari garena askotan nik egindakoa da, ari garela-ko aspaldiko pilota partidak, estropadak, txirrindularitza etab. botatzen». Ez du gogoratu nahi «lehen nola egiten ziren gauzak, zer bitartekorekin».

ESPERIENTZIA, AURRETIK

Aurreneko oposaketak 1983an

antolatuta zituzten Euskal Telebistarako, eta horiek gaudituta hasi zen lanean Lopetegik ETBn. «Emanaldiak apirilean hasi ziren, eta lau lagun urrian sartu ginen: gure semea jaio eta egun berrean sinatu nuen kontratua».

Telebistan sartzeko bazuen esperientzia kamerarekin. Izan ere, euskara irakasten zuen, eta ikasleak grabatu egiten zituen. «Zertarako? Ikasleak bere burua ikus zezan euskaraz hitz egiten eta akatsak zuzendu zitzen. 1980. urtean erosi nuen bideo kamera, eta artean ez zenez Euskal Telebistatik, joaten nintzen herri edo baserri batera norbait elkarrizketatzera, edo kirol apustu batetara...». Donostian, Deuston, jesuitetan, bideo eta audio saila ere jarri zuen martxan garai hartan.

BEREHALA ERREALIZAZIORA

ETBn kameralari hasi zen. Gogoran du 1984ko Donostiako Zinemaldia eta Euskal Herriko Itzulia grabatzen aritu zela. Baina ez zen denbora asko pasa errealizadore lanetan hasi aurretik. «Arantzeta zen geru eta gehiago produzitzen genuela eta ez zegoela errealizadorerik; hiruzpalau bakarrik ziren». Barne-oposaketak egin, eta 1984an bertan lortu zuen postua. «Aurrena videomixer-ak ginen; 1987an onartu zi-

guten errealizadore kategoria», gogoratu du.

1990etik, kirolerako errealizazio arduradun izan da. Tarte horretan, 1984-1990 artean, kirolaz bestelako lanak ere egin zituela azaldu du. Duncan Du musika taldearen lehendabiziko grabaketa telebistan, Ruper Ordorika, Txirri, Mirri eta Txirribiton, albiste-giak Maialen Iriarte aurkezle zela, eta ETAk preso ohia Ioldi lehendakartzarako aurkeztu zen hauteskundeak, besteak beste.

IRUDIMENA BI GURPILETAN

Kirol bakoitza lantzerakoan onena ematen saiatu izan da Lopetegik. Txirrindularitza, esaterako, ondo emateko zaila zela gogoratu du. «Lankide batzuen ideiei esker, lortu genuen ETBko tresneriarekin Frantziako Tourra eskaintzea. Zergatik geure tresneriarekin? Dirua aurrezten genuelako. Frantsesek diru asko eskatzen zutelako. Txirrindularitza ere, orain toki guztietan ikusten den denboren diferentzia eta GPSa, hori guk egin genuen aurreneko aldiz, 1993an, oker ez banago».

Txirrindularitza berrikuntza eta ekarpen gehiago ere eginak dira. «Orain mundu guztian ikusten den bideo-finisha ere guk egin genuen lehendabizi-

koz, 1991n. Argazki makineta obturazioa aldatu zitekeen, eta guri orduan iritsi zitzaizkigun bideo kamerei ere aldatzea bazegoen. Beraz, kamera gelditzean, bideo-finishean irudia garbi ikusi behar zela pentsatu genuen. Proba egin genuen, eta primeran ateratu zen. Geroztik beste guztiek koptatu zuten. Esaten didate exajeratu egiten dudala, baina inork ez dit erakutsi halako irudirik 1991koa baino lehenagokoa. Guk Bicicleta Eibarresan egin genuen proba, Indurainen eta Claveyrolat txirrindularien arteko sprintean».

AURRENEKO ZUZENEKOA

«Oso grazioso da, orain Reala Espainiako Kopako finalera iritsi da. 1988an, beste final bat jokatu zuen Madrilen, Bernabeun, eta han izan ginen Mikel Olazabal, Asier Aranguren eta hirurok. Ezetz asmatu Efe Television-en, lehendabiziko zuzenekoa zeinek egin zuten mundu osoarentzat? Mikel platoon, Asier beka-dun bezala eta ni errealizazioan aritu ginen, eta hurrengo egunean albiste agentziek hala aitortu ziguten egindakoa».

«Orain hain modan» dagoen streaming-az ere badu kontaktorik. «Okurritu zitzaidan eta idatzi nuen eta diseinatu nuen telebista programa bat: Gaztea Live. Azken batean, zen zuzene-

ko musika kontzertuak uzta-rtzea irratian, Interneten eta telebistan. 2009an hasi ginen hori egiten eta 500 kontzertu inguru egingo genituen», nabarmendu du.

FRONTOIEN KOLORE BERDEA

Telebistan ikusten diren frontoi-oren horma berdeetan ere badu zerikusia zarautzarrak. Izan ere, pilota ematen hasi zirenean, arazo batekin egin zuten topo: pilota ez zela behar bezala ikusten frontoi-erako horma zuriengatik.

Agintariekin *borroka* asko egin ondoren, Lopetegik lortu zuen «pilota ondo ikusteko behar den kontrastea», soilik frontoi-erako hormak margotuta. «Javier Carballo zen orduan Gipuzkoako pilota federazioko presidente, eta hark segituan ulertu zuen kontrastearena. Donostiako Atano III.a margotzeko agindu zuen, eta hortik aurrera besteekin ez zen arazorik egon». 1990eko hamarkada zen.

ETORKIZUNEAN, ROBOTAK

Hiru hamarkadatan «ikaragarri» aldatu da errealizadorearen lana. «Adibidez, 1987ko Kontxako Estropadan jarri nion aurreneko aldiz mini kamera bat traineru bati, Paco Prieto Koxtapeko entrenatzailearekin. Lau kiloko tresna zen! Orain, gauza txiki-txikia jartzen da, GPS-a ere bai kaxatxo batean... Aldaketak ikaragarriak izan dira, bakarrik tresneria txikiagoa eginez». Berrikuntzak egiteko dirua behar da, ordea, eta orain diruaren krisiak hori zaildu egingo duela ziur da.

Etorkizunean, berri, errealizadore lanak robot batek egingo dituela uste du Lopetegik, eta bera iritsiko dela hori ezagutzera. «Pertsona batek diseinatu beharko ditu aginduak, baina ziur naiz momentuko lana ez dugula guk egingo, makinek baizik. Eta horrek gauza asko esan nahi ditu».

Makinen gaia COVID-19 biru-sarekin ere lotu du Lopetegik. «Ni nahiko *konspiranoikoa* naiz. Proba egin dute: denok sartu gaituzte etxeetan, kartzelan, eta inork ez du protestatu. Inkesta egin zuten, eta herritarren %70ak nahiago zuen etxean jarraitu. Burutik al gaude? Non dira umeak? Berriro elkartzen garenean ezingo dugu elkar bersarkatu, elkar musukatu? Pentsa zenbat gauza lortu dituzten konfinamendu batekin. Beraz, gu etxean bagaude, makinek egon beharko dute kalean, ezta?».



Lore Uranga, bere agentziaren aurrean, martxoan ateratako argazkian. JUAN LUIS ROMATET

Koronabirusaren krisialdiaren eraginez, kolpe gogorra jaso du turismoaren sektoreak, erreserba gehienak bertan behera gelditu direlako. Sektorearen egoeraz hitz egin du Lore Uranga zumaiarrak.

2021. urtera begira jarri da turismoaren sektorea

-JUAN LUIS ROMATET

Koronabirusaren krisialdiak mundu mailako ekonomian izango duen eragina kalkulatu da. Aditu batzuen ustetan, 2008ko krisia txiki geratu daiteke birus honek sortu dezakeenarekin alderatuta. 1929ko krisialdi handiarekin parekatzen duten adituak ere badaude.

Sektore ekonomiko guztiek jasango dute krisi honen eragina etorkizunean, baina turismoaren gainean du dagoeneko koronabirusak eragindako laino beltza. 2020. urtea dagoeneko galdutzat jotzen dute, eta datorren

urtean hobera egingo duenaren itzaropena dute.

«Krisiak sektore guztietan izango du eragina, baina gure kasua okerragoa da, aurretik egindako lan guztia desgaiten ari baita», dio Lore Uranga zumaiarrak. Bere jaioterrian duen BQD bidaia agentziako ardura duena da, eta beste saltoki edota negozioek bezala, martxoaren 14an bulegoa itxeko erabakia hartu zuen. Ordutik, telelanaren bidez ari dira Lore bera eta agentziako beste langileak «bezeroei erantzun bat eman nahian, eta sektoreko etorkizuna nolakoa izango den aurrekusi nahian».

Egoera normal batean, halako

agentzia baten lana bezeroen oporretarako eskaintzak bideratzea, edo erreserbatzako bidaia eta hotelak kontratatzea da. «Normaltasunetik oso urrun dagoen garai ilun» honetan berriz, kontrako lana egiten ari direla dio Urangak. «Aurreko hilabeteetan egindako erreserbak ezeztatzen gabiltza. Erreserbaz erreserba joan behar dugu, konpainia bakoitzak erantzun desberdina ematen duelako», azaldu du Urangak.

Bezeroei «pazientzia pixka bat» eskatzen die BQD agentziaren arduradunak. «Egoera hau denontzat berria da, eta legeak ere aldatzen ari dira». Sektoreko

enpresak, airelineak eta hotelak kasu, «erantzun nahiko ona» ematen ari direla azaldu du. «Data aldaketak, bonoak ematea, edo dirua itzultzea proposatzen ari dira, eta paketeen kasuan, aldaketak egitea edo dirua bueltatzea. Turismo legeak ondo estaltzen ditu bezeroen eskubideak», zehaztu du.

Dena dela, testuinguruak ez du itzaropena izateko arrazoi handirik ematen, eta, horregatik, 2021. urtera begira jarri da sektorea. «Etorkizunera begira baikorra naiz, baina 2020a galdutzat jotzen dut; 2021era begira gaude dagoeneko», dio Urangak. «Bidaia agentziaren ikuspegitik, pentsatzen dugu enpresak mugitzen hasiko direla laster. Bestalde, pentsatu nahi dugu herritarrak bidaia agentzietara itzultzen hasiko direla, segurtasuna ematen diegulako hemen. Azken finean, Internet bidez bidaia kontratatu dituztenak arazo dezente izaten ari dira. Guk arazoak baditugu, pentsa haiek!», gaineratu du.

Bestalde, sektorearentzat laguntza zuzenak sortzea eskatzen du Urangak. «Erreserba guztiak bertan behera geratu zaizkigu, baina zergak ordaintzen jarraitu behar dugu». Hala, turismo bonoak sortzea eskatzen die instituzioei, «bidaia agentzietan saldu eta Euskal Herria ezagutzeko balioko luketeen bonoak». Izan ere, berriro bidaia luzeei ekiteko urtebeteko epea beharko dela aurreikusten du Urangak. Bitartean, turismoa gertuko lekuetan egitea proposatzen du. «Udan Euskal Herria deskubritu dezakegu. Gauza berri asko daude ezagutzeko eta. Gero, udazkenean eta negu garaian, inguruko herrialdeetara joateko aukera izango dugula pentsatzen dut. Frantziara, adibidez. Bidaia luzeagoak datoren udarako utzi beharko ditugu. Urtebete beharko da normaltasunera heltzeko».

Maiatzeko Death Cafe saioak online egingo dira


GIZARTEA // Koronabirusa dela eta, maiatzeko Death Cafe saioak online egingo dira, Jitsi plataformaren bitartez. Maiatzaren 6an saioa euskaraz egingo dute, 18:00etatik 20:00etara, eta maiatzaren 10ean gazteleeraz, ordu berean. Aforoa hamabi pertsonakoa izango da saio bakoitzean. Izena eman nahi dutenek, 688 71 72 47 telefono zenbakira mezu bat bidali edo deitu behar dute.

Haurrentzako marrazki lehiaketa antolatu du Gertuk

KULTURA // Konfinamendu garaian entretenitzeko eta irudimena lantzeko asmoz marrazki lehiaketa jarri zuen abian Gertu merkataria eta ostalarian elkartek duela bi aste. Lehen saria jaso duena, 9 urteko Janire Marian Perez izan da. Bigarena, berriz, 11 urteko Jokin Alberdi Gonzalez izan da. Gertu elkarteak saltoietan erabiltzeko 75 eta 50 euroko erosketa bono bana eskuratuko dute.

Entrenatzaile titulua ateratzen ari dira Pulpoko 17 lagun

KIROLA // Itxialdian egonda ere, Pulpo Eskubaloi Taldeko kideak ez daude geldirik egoteko. Konfinamendu egoera honi etekina ateratu nahian, Online Entrenatzaile ikastaroa ari dira egiten klubeko hamazazpi kide: hama bi Gipuzkoa mailako titulua ateratzen ari dira, eta beste bost Euskal Ligan entrenatzeko aukera ematen duena. Ikastaro horiek Gipuzkoako eta Euskadiko eskubaloi federazioek antolatu dituzte, hurrenez hurren.



ANDONI ELDUAIEN

«Taldekide guztiok zelaian lortu nahi ditugu sariak»

IGOR ZUBELDIA REALEKO FUTBOL JOKALARIA

Realak jarritako entrenamenduak etxean egiten ari da, goiz eta arratsalde. Ez da etxean sartuta denbora asko egoteko pertsona, baina horretarako ere balio duela ohartu da.

-ANDONI ELDUAIEN

Igor Zubeldia (Azkoitia, 1997) Realeko futbol jokalaria Azkoitia bere etxetik ari da azkenaldian Realak agindutako entrenamenduak egiten. Taldea, Errege Kopako finala eta denboraldia hizpide izan ditu azkoitiarrak.

Zer moduz itxialdiko egun hauek?

Hasieran, horrenbeste egun etxean sartuta egon beharko genuela esan zutenean, banuen beldurra eta kezka, ez baina inoiz etxean denbora asko sartuta egotekoa izan. Halere, egunak aurrera joan ahala ohartu naiz etxean egoteko ere balio dudala.

Gutxitan jardungo zenuen etxetik entrenatzen, ezta?

Lehen aldia da. Horrela egokitu da orain. Zorionez, etxean badi-tut gorputza lantzeko tresnak eta ezin naiz kexatu.

Zein da Realak eta zuek egoera honetan lan egiteko duzuen prozedura?

Goizez eta arratsalde egiten ditugu entrenamenduak, eta taldeko prestazaila fisikoak WhatsApp bidez bidaltzen digu eguneko plana. Goizean indar ariketak egiten ditugu; gorputzaren goiko zein beheko atalak lantzen ditugu, lesioak ekiditeko eta giharrak indartzeko. Arratsaldean, korrika egiteko zintan edo bizikletan ibiltzen naiz.

Itxura guztien arabera, laster izango duzue Zubietara itzultzeko modua.

Hasi gara argi pixka bat ikusten, eta ea horrela den. Oso egoera zaila bizi dugu, eta futbola bezalako kirolak bigarren mailan geratu dira. Hala ere, esaten ari diren kontuengatik, nahikoa gertu egon behar du Zubietarako itzulerak.

Apirilaren 18an zineten Errege Kopako finala jokatzekoak Sevillan. Finala jokatu al da?

Finala jokatzeko desiatzen gaude guztiok, bai jokalariek eta bai jarraitzaileak. Ez da egunero iristen final batera; lan asko egin behar da aurretik. Denok ilusionatuta gaude. Noiz eta non jokatu den inork ez daki. Egoera aztertzen duten profesionalak lanean ari dira eta ikusiko da zer erabaki hartzen duten. Guk finala jokatzeko nahi dugu.

Liga txapelketaren etorkizuna ere erabaki horri lotuta etorriko da?

Liga noiz edo nola bukatzen denaren arabera zehaztu beharko da Kopako finalaren data. Garrantzitsuen lehenengo egoera hau pasatzea da.

Real sailkapeneko laugarrena da. Liga horrela amaituz gero Txapelketaren Ligara sailkatu-

ko litzateke taldea. Saria, ordea, zelaian irabazi nahiko duzue...

Zalantzarik gabe. Egungo sailkapena errespetatuko dutela diote, baina taldekide guztiok zelaian lortu nahi ditugu sariak, baita Europako txapelketarako sailkapena ere. Ea horretarako aukera dugun.



«Realeko jarraitzaileek gure onena ematen laguntzen digute»

Denboraldia martxan jartzen bada berriz, zer helburu izan beharko luke Realak?

Orain arteko maila ematea edota ahal bada gehiago. Ziur naiz orain arte bezala aritzen bagara,

ondo ibiliko garela eta sailkapeneko goiko postuetan mantenduko garela. Berriz hasiko bagina, kontua izango da erritmo aldetik zer moduz moldatuko ginateken. Halere, horrek ez nau asko arduratzen, oso motibatuta gaude eta helburuak lortzeko.

Eten honek eraginik izango al du taldean?

Fisikoki eragin lezake. Ez da berdina futbol zelaian edo etxean entrenatzea. Gainera, desberdina izango da baloiarekin kontaktuan hasten garenean ere, orain ez gara eta baloiarekin entrenatzen ari. Dena dela, pentsatu behar dugu ez dela ezer gertatuko eta lehengo erritmoarekin hasiko garela lehiatzen.

Arlo pertsonalean, zer moduz sentitu zara zelaian?

Oro har, oso gustura. Egia da partida batzuk besteak baino hobek egin ditudala. Orokorrean, denboraldi ona egiten ari nintzela ikusi dut, eta urteak aurrera joan ahala pixkanaka-pixkanaka eskaierak igotzen eta hobetzen ari naizela. Aurten, gainera, nire ehungarren partida jokatzeko aukera izan dut Realarekin. Aurretik egindako lanaren saria jaso dut.

Erdiko atzelari postuan ohi baino gehiago jokatu duzu aurten.

Hasieran banituen zalantzak, ez zelako nire ohiko postua. Arlo guztietan bezala, entrenatuz gero hobetu egiten da. Automatismok hartu ditut eta partidak jokatu ahala hobeto ikusi naiz. Orain arte zelai erdiko postuan jokatu dut, baina entrenatzaileak nik erdiko atzelari postuan jokatu behar dudala uste badu, ni prest egongo naiz, beti taldeari laguntzeko prest bainago.

Aurtengo momentu bereziren bat aukeratzen ausartuko al zinateke?

Bat baino gehiago aukeratuko nituzke. Lehena, Real Madrilen aurka Santiago Bernabeu zelaian jokatu genuen partida; oso hunkigarria izan zen eta hurrengo faserako sailkapena lortu genuen. Mirandesen aurka Anduva zelaian lortu genuen Errege Kopako finalerako sailkapena ere oso ederra izan zen.

Zertan laguntzen dute Real Arena zelai berrian batzen diren Realeko jarraitzaileek?

Zaleak eta taldea elkar konektatu gara, zaleek egiten duten ahalgintzagatik eta guk zelaian erakutsitakoagatik. Laguntza handia da guretzat. Harmailetakoa animo oihuek asko motibatzen gaituzte, eta hori gehigarri bat da jokalariontzat. Gure onena ematen laguntzen digute.



Maskarak banatu zituzten atzo, besteak beste, Urrestillan. MAILO OIARZABAL

Herritarrek herritarrentzat egindako maskarak, Azpeitian eta Orion

Elkar-ekinek hainbat jostunek egindako 500 ale banatu zituen atzo, doan • Orioko Carmen arrandegikoak borondatearen truke ari dira saltzen eta dirua Berdin-Berdinak elkartek jasoko du

-MAILO OIARZABAL

Maskarak bai, maskarak ez, maskarak agian... Koronabirusaren gainera babesteko tresna horren gainean mezu kontrajarriak zabaldu dituzte agintariek pandemia hasi zenetik, baina azkenaldian gero eta gehiago dira deskonfinamenduarekin batera

maskaren erabilera ohiko edota ezinbesteko bihurtuko dela dioten iturriak. Herritarrek maskarak beharko dituzte, eta orain arte guztientzako adina ez dagoela dirudenez, badira beren kabuz eta elkertasunez antolatzen hasi diren herritarrak. Horren bigarrena dira Azpeitiko Elkar-eki-

nek eta Orioko Carmen arrandegikoak abiatutako egitasmoak

Lan boluntarioaren fruitua

Azpeitian, herritar talde batek eta Elkar-ekin taldeak bat egin dute herritarren eskura maskarak doan jartzeko, «gogor kolpatu gaituen pandemiari aurre egi-

teko». Elkar-ekinek kudeatzen duen Soreasuko Elkargunean duten materiala, arropak eta izarak, erabili dituzte oihalezko maskarak egiteko. Jostun profesionalak arduratu dira eredu egokia aukeratzeaz eta materiala antolatzeaz, eta hainbat jostun boluntario ere parte hartu du, bakoitzak bere etxean maskarak josiz.

30 bat lagunek parte hartu dute ekimenean, eta 600 maskara josi eta banatu dituzte dagokenean: ehun banatu zituzten joan den astean zaintza eta garbiketa lanetan ari diren herritarren artean, eta atzo beste 500 banatu zituzten Elkargunean, Sanjuandegin eta Urrestillan.

«Maskarek ez dute legezko homologaziorik, baina osasun arloan lanean dabilten hainbat lagunekin kontrastea egin ondoren erabaki genuen ekimenarekin aurrera egitea. Erabateko bermea ez izan arren, kutsatzeko arriskua gutxitzeko baliagarriak dira», azaldu du Elkar-ekinek. Maskara gehiago jostea eta banatzea aztertzen ari dira, «beharraren arabera». Horretarako jostun boluntario gehiago beharko dituztela aurreikusita, 688 80 23 52 telefono zenbakia eman dute, animatzen denak dei dezan.

Maskara solidarioak

Orioko Carmen arrandegiko jabeak lanean jarri ditu etxeokoa, ama eta izeba, eta konfinatuta egon beharreko egun hauetan oihalezko maskarak egiten ari dira, gero jendearen artean banatzeko. Maskarak arrandegian bertan har ditzake edozeinek, borondatearen truke. Izan ere, helburu solidarioa ere badu Orioko arrandegiaren ekimen honek: jasotako diru guztia Berdin-Berdinak kirol inklusiboko elkartearantz izango da.

'Elkano' eta 'Gartxot' filmak ikusgai izango dira gaur UKTren hedabideetan

-MAIALEN ETXANIZ

Tokikom toki komunikabideen bateraguneak eta EITBk sinatu duten akordioa tarteko, gaur *Gartxot: konkista aitzineko konkista* eta *Elkano: lehen mundu bira* filmak eskainiko dituzte, aldi berean, Euskal Herriko euskarazko telebista eta toki hedabide ugarian, eta horien artean daude Urolako Komunikazio Taldearen (UKT) hedabideak.

Euskaraldiak Etxealditik Euskaraldira ekimenaren barruan prestatu duen proposamenaren bueltan antolatu dute animaziozko euskarazko bi film horien emanaldia Tokikom eta EITBk. «Hizkuntza eta ohiturak izan dira proposamenaren ardatza», azpimarratu dute egitasmoaren sustatzaileek. «Euskarazko ikus-entzunezkoen gozatzeko» nahiz «euskarazko ekoizpenen kontsumo-ohitura bultzatzeko» egin dute bat toki hedabideek eta telebistek.

Webguneak eta Erlo TB

Horrenbestez, gaur, 16:00etan hasita, *Elkano: lehen mundu bira* filma izango da ikusgai UKTren hedabide guztetan: Karararen, Baleikerren, Maxixatzenen, Uztarriaren, Zarauzko Hitzaren eta UROLA KOSTAKO HITZAREN webguneetan eta Erlo Tebistan.

Bestalde, 21:00etan, *Gartxot: konkista aitzineko konkista* filma izango da ikusgai, baina kasu horretan, Erlo Tebistan bakarrik.

Eskelak

Hilberriak
Urteurrenak
Eskertzak

UROLA KOSTAKO HITZAn jarrita,
Goierriko Hitzan eta Atarian DOAN

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

Eskelak 18:30ak arte hartzen ditugu / urolakosta@hitza.eus / Tel.: 943-89 00 17

Eskelak orain TXIKIA (82mm x 64mm): 100 € / *Harpidedunentzat: 50 €
HANDIA (124mm x 64mm): 150 € / *Harpidedunentzat: 75 €
merkeago ESKERTZA (38mm x 64mm): 50 € / *Harpidedunentzat: 25 €

*Harpidedunak HITZako bulegotik pasa
Bez barne

Argitaratzailea: Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Lege Gordailua: SS-0188-04. ISSN. 1697-8587
Zuzendaria: Onintza Lete Arrieta.
Helbidea: Azpeitia, Soreasu 1, 20730, 943-81 38 41.
Zarautz: Araba Kalea 27, 20800, 943-89 00 17.
Posta elektronikoa: urolakosta@ukt.eus.
Webgunea: urolakosta.hitza.eus
Zuzendariordena: Julene Frantzeseña.
Publizitatea: Urola Kostak: 673 69 90 95.
Zarautz: 607 61 52 39, zarautz@ukt.eus.
Orio-Aia: 607 49 87 23, orio@ukt.eus.
Zumaia: 685 71 20 90, zumaia@ukt.eus.
Getaria: getaria@ukt.eus.
Azpeitia: 607 49 87 25, azpeitia@ukt.eus.
Azkoitia: 607 49 87 27, azkoitia@ukt.eus.
Zestoa-Aizarnazabal-Errezil-Beizama: 607 49 87 27, zestoa@ukt.eus.



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:

Aia, Aizarnazabal, Azkoitia, Azpeitia, Beizama, Getaria, Errezil, Orio, Zarautz, Zestoa eta Zumaia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko):
943-30 30 35



Temperatura
V 20°
A 8°

Mareak

Itsasgora	09:13-21:32
Metroak	3:30-3:37
Itsasberhera	02:58-15:13
Metroak	1:20-1:38

zarauzkohitza.eus / urolakosta.hitza.eus

«Harategian jendea lasaiago antzematen dut lehengo astetik»

IÑAKI OLIDEN HARAKINA

Iñaki Oridenek harategian edo ukuilu inguruan ematen ditu eguneko ordu gehienak. Hala bezerekin nola idiekin, 'psikologo' lanak egitera ohitua dagoela azaldu du, ironiaz.

-IÑIGO GAITON Orio

Ondo pasa al dituzu itxialdiko asteak?

Baietz esango nuke. Lanagatik nahi baino gehiago ibili behar izan dut batera eta bestera, baina etxean ere ordu asko eman ditut, eta primeran moldatu gara emaztea, bi seme-alabak eta laurok. Elkarrekin ohi baino denbora gehiago eman izanak gure arteko harremanak sendotu egin dituela esango nuke.

Idiak ere familiakoak dituzu, ia-ia. Inoiz azpimarratu izan duzu haien psikologia ulertzen saiatzen zarela, deman garrantzia duelako. Nola eragin die konfinamenduak?

Itxialdiko lehen egunak gustura hartu zituztela esango nuke, gutako askok bezala, lasai egoteko aukera izan zutelako. Gerora, urduriago antzeman ditut. Gureak ohituta daude egunero edo bi egun behin entrenamenduak egitera, eta asteek aurrera egin ahala, edozein kirolarik izan dezakeen grina pilatzen joan zaie. Ezinegonagatik elkarki adarka ibiltzen dira, saltoka, eta haien artean ibiltzea arrisksua izaten hasi da.



IÑIGO GAITON

Erraz atzematen al diezu zer al darte duten?

Pertsoneri baino errazago askotan. Beraiek niri ere bai: okerreko hankarekin jaiki bainaiz edo ohi baino urduriago banabil, bezagirua aldatzen zaie. Idi bakoi-tza mundu bat da, eta konfinamenduak desberdin eragin die denei, guri bezalaxe.

Idiak batetik, harategia beste-

itik. Ze martxa duzue egunotan?

Duela bi astera arte-edo denak emanda ibili gara, gain hartuta. Dena den, lehengo astetik bezeroak lasaiago antzematen ditut, funtzionamendu berri honetara ohitzen ari garela ematen du.

Konfinamendua indarrean sartu aurreko eguna harri eta zurbukatu zenuen.

Jendea ez nuen sekula hain urduri ikusi. Ziurgabetasun handia zegoen, oraindik ezarri gabe zeuden babes neurrien protokoloak, eta egun gogorra izan zen. Bezeroek jenero pila bat eramane zuten etxera; komuneko paperearen efektu bera gertatu zen haragiarekin.

Haragirik gabe geratzeko beldurrik izan al zenuen?

Ez, hornitzaileek behar adina izango genuela esaten zidatelako.

Zer haragi mota saldu duzu gehien azkenaldian?

Aste batzuetan gauza bat, hurrengoan bestea... Aste Santuetan, adibidez, txerri saiheskiak. Oilaskoa ere asko, orokorrean.

Aurrera begira, baikorra al zara?

Izatez naiz baikorra, eta honek gauza onak ere ekarriko dituela uste dut; besteak beste, auzotarraren arteko harremanak indartzen ari direla iruditzen zait, adibidez.

Bukatu aurretik, sortzaileen aldeko aldarria egin nahiko nuke. Azken asteotan agerian geratu da gizarteak haien lanarekiko duen premia. Sektore guztietatik egiten den lanari eman behar zaio balioa, denon eguneroko bizitza hobetzeko.

Agurrak

Karmen eta Joxe



Azkoitia. Karmen Etxanizek gaur 86 urte betetzen ditu, eta gaurko egunez, orain dela 60 urte, Joxe Iturberekin ezkondu zen. Beraz, zorion bikoitzak Joxeri eta Karmeni egun berezi honetan, etxeko guzti-guztien partez. Zorionak, bihotzez.



UROLAKO KOMUNIKAZIO TALDEA KOOP. ELK.

Komunikazio zerbitzuak:

- Marka nortasuna
- Komunikazio estrategia eta plangintza
- Irudia eta diseinua: bideoak, papertegia, argazkigintza...
- Web orriak, blogak eta sare sozialak
- Tablet/smartphone aplikazioak
- Harreman publikoak: ekitaldien antolaketa
- Itzulpenak eta zuzenketa
- ...

Harremanetarako:

uh@hitza.eus
943-81 38 41
943-89 00 17